

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

OGASUNA ETA EKONOMIA

1. Quizz 41 unibertsitate-lehiaketa. Zenbat dakizu EAeko Ekonomia Itunari buruz? 2
2. «Non ikusten duzu Europa Euskadin?» argazki-lehiaketaren zortzigarren edizioa 4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Quizz 41 unibertsitate-lehiaketa. Zenbat dakizu EAeko Ekonomia Itunari buruz?

2.- Araua

Agindua, 2019ko azaroaren 5ekoa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena eta Hezkuntzako sailburuarena, "Quizz 41. Zenbat dakizu EAeko Ekonomia Itunari buruz?" lehiaketa deitzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Deialdia: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/11/1905310a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ekonomia Itunak egonkortasun, oreka, kontrol eta erantzukizun balioak ematen ditu. Ekonomia Itunaren Legearen ezaugarriak direla eta, gai idorra eta oso teknikoa da, baina Ogasun eta Ekonomia Sailak beharrezkotzat jotzen du finantzaketa-tresna hori herritarren artean indartzea eta modu erraz eta gardenean adin-tarte desberdinetara eramatea.

Xede gisa hartuko den publiko interesgarrietako bat euskal unibertsitateetan ikasten duten pertsonak dira, eta ikasleen inplikazio handiagoa dakarren formula erabiltzea izango da aukerarik onena. Horregatik, lehiaketa honek unibertsitate-inguruneetan harreman publikoetako ekintza bat garatzeko beharra jasotzen du: UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea.

Ekintza honek helburu pedagogiko eta dibulgatzailea lortu nahi du unibertsitateko ikasleen artean. Era berean, zeharkako ekintza honek Jaurlaritzako bi sail hartzen ditu; izan ere, Ogasun eta Ekonomia Sailaz gain, Hezkuntza Sailaren lankidetzara ere beharrezkoa da. Azken batean, Ekonomia Itunera hurbiltzeko bide desberdina, dibertigarria eta hurbila eskaini nahi da.

Unibertsitate-esparruko lehiaketa bat diseinatzea erabaki da. EAeko Ekonomia Itunari buruz gehien dakien EAeko unibertsitate-sistemako unibertsitateetako bateko ikasle-taldeak irabaziko du lehiaketa. Talde horretako kide bakoitzari ikasketak-beka bat emango zaio sari gisa, hau da, 2020-2021 ikasturtean graduoko, graduondoko edo masterreko ikasketen matrikula ordainduko zaio EAeko unibertsitateetako batean. Sari hori gehienez 2.500 eurokoa izango da ikasle bakoitzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Mondragon Unibertsitateko taldeko kideek "Quizz 41. Zenbat dakizu EAeko Ekonomia Itunari buruz?" lehen lehiaketa irabazi dute. Eta taldea osatzen duten 4 pertsoneri 2.500 euro esleitu dizkiete graduoko edo graduondoko ikasketak egiteko 2020an.



Guztira, 400 ikasle inguruk parte hartu dute lehiaketa honetan, ia ehun taldetan banatuta, eta Ekonomia Itunari buruzko 100 galdera inguru egin dira, konplexutasun-maila desberdinekin.

“Quizz 41. Zenbat dakizu EAEko Ekonomia Itunari buruz?” lehiaketari buruzko informazio guztia hemen aurki daiteke: www.quizz41.eus

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ez da aplikagarria.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

«Non ikusten duzu Europa Euskadin?» argazki-lehiaketaren zortzigarren edizioa

2.- Araua

Agindua, 2019ko maiatzaren 17koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, «Non ikusten duzu Europa Euskadin?» argazki-lehiaketaren VIII. edizioaren deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/05/1902480a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Komunikazio-ekintza horrek honako xede hauek dauzka:

- Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei FEDER funtsak eskualde-garapenean duen parte-hartzea ezagutaraztea; izan ere, autonomia-erkidego honen garapen ekonomikoa sustatzen duten inbertsio-jarduerak, proiektuak eta ekimenak finantzatzen ditu funts horrek.
- Gazteek Europarekin zerikusia daukaten alderdi eta gaietan duten interesa piztea, berengandik hurbil dagoen mintzaira teknologikoa erabiliz.
- Sare sozialak Europako hedabide berri gisa finkatzea eta gazteek beren artean saretzeko erabil ditzatela sustatzea.
- Erreferente bihurtzea mezu publikoen hedapenean, komunikazio-jardueretan elementu berritzaileak sartuta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lehiaketa ez zen txertatzeko jarduera gisa bakarrik hautatu; izan ere, dauzkan aurrekariak direla-eta (aurreko zazpi edizioak), jarduera ontzat jotzen da, eta, are, Europako Batzordeak ere ideia errepikatu du, urtero antolatzen baitu ezaugarri berberak dituen lehiaketa bat.

Lehiaketa Facebook bidez garatu da; bertan, EAEko 14 eta 25 urte bitarteko 67 gaztek parte hartu dute, eta ia 1.000 boto eman dira. Gainera, lehiaketaren orrialdera 3.500 bisita baino gehiago erregistratu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ez da aplikagarria.